

## GOBERNU BATZARRA

2017 04 24

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeita lauean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b> <b>Nerea Letamendia Belloso</b> <b>Jokin Azkue Arrastoa</b> <b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	1.- Aurreko akta onartzea. 2.- Iurreamendi egoitzak aurkeztutako 3/2017 zk.duen faktura zerrenda.
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	
<b>Karmele Contreras Goikoetxea</b>	3.-Tolosako hiri antolamenduko Plan Orokorraren "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua urbanizatzekeo jarduketara programa. hasierako onespena. Programa de actuación urbanizadora del subámbito "6.1 San Cosme y San Damián" del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa. Aprobación inicial.
<b>Kontuhartzaitza:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	4.-Enplegune 2016ko enplegu sustapeneko tokiko ekintzetarako dirulaguntzen lehen ordainketa. 5.-"Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua"-n jasotako obren 3. ziurtagiria (FV17/0008 faktura). 6.-Tolosako Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektuaren aldatetan jasotako obrak adjudikatzea. 7.-17-18-19/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko apirilaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.-lurreamendi egoitzak aurkeztutako 3/2017 zk.duen faktura zerrenda.**

lurreamendi egoitzak **3/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **342.927,50** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **3/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

### **3.- Tolosako hiri antolamenduko Plan Orokorren "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa. Hasierako onespena./ Programa de actuación urbanizadora del subámbito "6.1 San Cosme y San Damian" del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa. Aprobación inicial.**

2017ko martxoaren 14an, BISTA ALAI, S.A. enpresak honako dokumentu hau aurkeztu zuen udaletxean:

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Jose Mari Aseginolaza Arkitektoak, 2017ko otsailean idatzia.

Ikusita dokumentuari buruz egin diren txosten juridiko eta teknikoak, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El 14 de marzo de 2017, la empresa BISTA ALAI, S.A. presentó en el ayuntamiento la siguiente documentación:

Programa de Actuación Urbanizadora del subámbito "6.1 San Cosme y San Damián" del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, redactado por el arquitecto José María Aseginolaza en febrero de 2017.

Vistos los informes técnico y jurídico y el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, el Jefe de Departamento de Urbanismo e Infraestructuras, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**-Hasierako onarpena ematea "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programari, honako

## **ACUERDA**

**PRIMERO.**-Aprobar inicialmente el Programa de Actuación Urbanizadora del subámbito "6.1 San Cosme y San Damián",

baldintza hauekin:

1.-Epeei dagokionez, Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onarpena ematen zaionetik urbanizazioa eta eraikina bukatzen diren arteko epe partzial guztiak zehaztu beharko dira.

2.-Fase bakoitzeko eraikinei lehen erabilera eman ahal izateko, eraikinak berak behar dituen azpiegitura minimoak bukatuak eta martxan jarriak egon beharko dute.

3.-Kontuan izanda bide-zorra duten eremu batzuk daudela, azpian aparkalekuekin, inolaz ere instalazio publikoak ezingo dira eremu pribatutik joan (aparkalekuetako sabaian zintzilik).

4.-Aurkezturiko proposamenari behin betiko onarpena eman aurretik, errepideak kudeatzen dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Sailaren eta sareen kudeatzaileen oniritzia jaso beharko da: Ur-Zerbitzuak, Tolosagasa eta Tolargi.

Memoria osatzen duen pleguan, Gipuzkoako Urak SA enpresaren Erreglamentu Teknikoaren aipua jaso beharko da, ur hornidura eta saneamenduko instalazioek bete beharko dutena.

5.-Aurreikusita dagoen garajeko sarbidean "6.2 Ibaralde Kalea 1, 3 eta 5" azpiesparruarekiko zortasuna ezarriko zaio.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 20 egunez argitara ematea iragarkian, hasierako onarpen baldintzatuarekin batera, honako eduki minimoa jasoz:

- Eremuaren identifikazioa: "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparrua.
- Sailkapena eta kalifikazioa: Hiri-lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren gabeziagatik eta/edo urritasunagatik.

con las siguientes condiciones:

1.-En lo que se refiere a los plazos, se deberán concretar todos los plazos parciales desde la aprobación inicial del Programa de Actuación Urbanizadora hasta la finalización de la urbanización y del edificio.

2.-Para poder conceder la primera utilización de los edificios de cada fase, las infraestructuras mínimas propias de cada edificio deberán estar finalizadas y en funcionamiento.

3.-Teniendo en cuenta que hay varias zonas de servidumbre de paso bajo las cuales hay aparcamientos, las instalaciones públicas no podrán ir por la zona privada (pendientes del techo de los aparcamientos).

4.-Con anterioridad a la aprobación definitiva de la propuesta presentada, se deberá contar con el visto bueno del Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa encargado de la gestión de las carreteras y de los gestores de las redes: Ur-Zerbitzuak, Tolosagasa y Tolargi.

En el pliego correspondiente a la Memoria se debe mencionar el Reglamento Técnico de la empresa Gipuzkoako Urak SA que deben cumplir las instalaciones de suministro de agua y de saneamiento.

5.-En la entrada prevista al garaje se impondrá servidumbre a favor del Subámbito «6.2 Calle Ibaralde 1, 3 y 5».

**SEGUNDO.-** Publicar por un periodo de 20 días un anuncio en el BOG, junto con la aprobación inicial condicionada, con el siguiente contenido mínimo:

- Identificación de la zona: Subámbito "6.1 San Cosme y San Damian".
- Clasificación y calificación: Suelo urbano no consolidado, por carencia y/o insuficiencia de urbanización.

- Eremuari izendatutako hirigintza-erakigarritasuna: sestra gaineko 4.900 m2(s) eta sestrapean 4.980 m2(s).
- Jarduketa sistema: Egikaritze pribatua, hitzarmen sistema bidez.
- Urbanizazioko Exekuzio Materialaren aurrekontua: 812.958,27 €.
- Urbanizatzeko eta eraikitze lanak egikaritzeko programazioa:
  - 1.- Sotoa, erdisotoa (kaleko behe oina) eta atzeko eraikina (etxebizitza tasatuak izango dituenak).
  - 2.- Aurreko blokeko lehen ezkaratzeko eraikina osatu.
  - 3.- Aurreko blokea eta jarduketa osatu.
- Edificabilidad urbanística asignada al ámbito: 4.900 m2(t) sobre rasante y 4.980 m2(t) bajo rasante.
- Sistema de actuación: Ejecución privada, mediante sistema de concertación.
- Presupuesto de Ejecución Material de la Urbanización: 812.958,27 €.
- Programación para la ejecución de los trabajos de urbanización y edificación:
  - 1.- Sótano, semisótano (planta baja de la calle) y edificio posterior (que contendrá viviendas tasadas).
  - 2.- Completar el edificio del primer portal del bloque delantero.
  - 3.- Completar el bloque delantero y la actuación.

**HIRUGARRENA.**-Jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei ebazpenaren berri ematea.

**TERCERO.**-Notificar la resolución a los titulares de los bienes y derechos afectados por la actuación.

**LAUGARRENA.**-Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onarpena eman aurretik eremua urbanizatzeko kalkulatu den kostuaren % 1eko bermea aurkeztu beharko da, 8.129,58 euro hain zuzen ere.

**CUARTO.**-Con anterioridad a la aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanizadora, se deberá presentar una garantía por el 1% del coste calculado para la urbanización del ámbito, es decir, de 8.129,58 euros.

#### **4.-Enplegune 2016ko enplegu sustapeneko tokiko ekintzetarako diru-laguntzen lehen ordainketa.**

2016ko abuztuaren 22an, Tolosako Udalak jaso zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpena; zeinaren bidez 342.960,23€ -ko dirulaguntza onartu zen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntzarentzako (2016eko ekainaren 16 EHAO).

Enpresei ordainketak bi zatitan egingo zaizkie, lehenengoa kontratazioaren momentuan eta bestea dokumentazioa aurkeztu eta espedientearen amaieran.

Kontuan izanda lehen eranskinean dauden enpresek Enplegune 2016 programari dagozkien kontratazioak egin dituztela, ondorengo dokumentazioa aurkeztu dute:

#### **Enpresaren aldetik:**

- Enpresaren ordezkariaren Izen deiturak
- Enpresaren izena edo izen soziala
- IFK edo NAN
- Hitzarmen kolektiboaren izena
- Langilearen kategoria

- Kontu korronteko zenbakia
- Zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria (Ogasuna)
- Enpresa, dituen betebeharretan, egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria (G.S.)
- Kontratazio kostuen aurreikuspena
- Langilearen G.S. alta parteak
- Kontratuaren eta Lanbideri eginiko komunikazioaren kopiak
- Kontratazioa egin aurreko 3 hilabete lehenagoko batez besteko plantila (G.S. RED sist.)
- Enpresaren lan bizitzaren txostena (kotizazio kontuaren kode berekoa eta kontratazio egunekoa)

**Langilearen aldetik:**

- Nortasun agiriaren kopia
- Errolda ziurtagiria
- Lanbideko inskripzio-aldien ziurtagiria
- Lanbideren DSBE jaso izanaren ziurtagiria (horrela bada)
- Laneko bizitzaren txostena (G.S.)

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Dagozkien enpresei onartutako dirulaguntzaren %50eko lehen ordainketa egitea

NOMBRE del CONTRATADO	COLECTIVO TIPO 1, 2 Y 3	COSTE PREVISTO	1º PAGO	2º PAGO
	EMPRESA CONTRATANTE			
JOSE ANGEL ROJO OTAÑO	TALLERES IBARRA, S.L.	2.835,18 €	1.417,59 €	1.417,59 €
ELIXABET ARANCEGUI ELORDI	ORBINOX, S.A.	3.329,67 €	1.664,83 €	1.664,84 €
AZIZA CHAKIR OUJAA	IRURAKO UDALA	7.692,31 €	3.846,15 €	3.846,16 €
DAVID AGUIRRE BUSTAMANTE	LANGA POES, S.L.	4.318,68 €	2.159,34 €	2.159,34 €
MARIA IZASKUN HERNANDEZ GONZALO	RAFA GORROTXATEGI 1680, S.L.	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Enplegu departamentuari.

**5.-“Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”-n jasotako obren 3. ziurtagiria (FV17/0008 faktura).**

“Berazubiko biribilgunea ta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”n jasotako obren kontratua, 370.121,96€ (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Hauexek dira orain arte ordaindu diren ziurtagiriak:

**Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa**

1. ziurtagiria(% 21ko BEZa)	FV 17/0002.....	29.491,80€
1. ziurtagiria (BEZik gabe)	FV 17/0004.....	15.921,30€

2. ziurtagiria(%21ko BEZa)	FV 17/0005.....	55.236,90€
2. ziurtagiria (BEZik gabe)	FV 17/0006 .....	2.378,04€
<b>GUZTIRA.....</b>		<b>103.028,04€</b>

Orain, honako ziurtagiri hau aurkeztu dute:

3. ziurtagiria (%21ko (BEZa).....	FV 17/0007	55.410,73€
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV17/0008	6.836,18€

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea "Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua"n jasotako obren 3. ziurtagiria, **62.246,91 €**-koa.

**BIGARRENA.-** Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honi dagozkion 6.836,18€-tako ordainketa eskatzea Gipuzkoa Urak enpresari.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Berazubi UTE-ri, Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

### **6.-Tolosako Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektuaren aldaketan jasotako obrak adjudikatzea.**

2017ko urtarrilaren 16an egindako Gobernu Batzarrean onartu zen: Tolosako Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektuaren aldaketan jasotako obrak kontratatzeke espedientea eta Klausula Administrazioen agiria.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa GAOn eta Kontratatzailearen profilean, argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zituzten.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

- CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A.  
-CONSTRUCCIONES MARIAEZCURRENA, S.L.

La Junta de Gobierno el 16 de enero de 2017, aprobó el expediente y los pliegos de condiciones administrativas para la contratación de las obras contenidas en el Proyecto de Modificación de Urbanización para la mejora de accesibilidad de Nafarroa etorbidea de Tolosa.

Tramitado el correspondiente expediente de contratación mediante procedimiento abierto se publicó el anuncio en el BOG, y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

- CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A.  
-CONSTRUCCIONES MARIAEZCURRENA, S.L.

- CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.
- VALERIANO URRUTIKOETXEA, S.L.U.
- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.
- CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.
- ALTUNA Y URIA, S.A.

2017ko martxoaren 29an, Kontratazioa mahaiak, martxoaren 27an egindako txosten teknikoaren arabera honako hau proposatu zuen:

Lehiaketa arautzen zuten pleguen hamargarren klausula jarraikirik, ondorengo enpresak lehiaketatik kanpo uztea, memoria teknikoaren balorazioan 20 puntu baino gutxiago lortzeagatik, eta Construcciones Moyua, S.L., enpresari aipatutako obrak adjudikatzea.

Horretan guztian oinarrituta, 2017ko martxoaren 29ko 556 zenbaki dun dekretuaren bidez Cobnstgrucciones Moyua, S.L., enpresari zenbait dokumentu aurkezteko errekerimendua egin zaio.

2017ko apirilaren 18an Construcciones Moyua, S.L., enpresak aurkeztu du aipatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontutan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko kontratuaren Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Lehiaketa arautzen zuten pleguen hamargarren klausulari jarraikiz, ondorengo enpresak lehiaketatik kanpo uzteak, memoria teknikoaren balorazioan 20 puntu baino gutxiago lortzeagatik: Enpresa hauek dira:

- Construcciones Echaide, S.A.
- Construcciones Mariaezcurrena, S.L.
- Valeriano Urrutikoetxea, S.L.U.
- Altuna y Uria, S.A.

**BIGARRENA.**- Lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta Ccconstrucciones Moyua, S.L., enpresari adjudikatzea. Tolosako Nafarroa

- CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.
- VALERIANO URRUTIKOETXEA, S.L.U.
- CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.
- CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.
- ALTUNA Y URIA, S.A.

El 29 de marzo de 2017, la Mesa de contratación, de conformidad con el informe técnico emitido el 27 de marzo, realizó la siguiente propuesta:

Excluir del procedimiento a las cuatro empresas que no han alcanzado los 20 puntos en los criterios no cuantificables, tal y como figura en la cláusula décima del pliego de cláusulas administrativas, y asimismo adjudicar la ejecución de las obras a la empresa Construcciones Moyua, S.L.

En base a ello, mediante decreto n.º 556, de fecha 29 de marzo de 2017, se requiere a la empresa Construcciones Moyua, S.L., la presentación de determinada documentación.

El 18 de abril de 2017, la empresa Construcciones Moyua, S.L., presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Rexto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ACUERDA

**PRIMERO.**- Excluir del procedimiento a aquellas empresas que en los criterios no cuantificables automáticamente no han alcanzado los 20 puntos necesarios tal y como figura en la cláusula décima del pliego. Dichas empresas son las siguientes:

- Construcciones Echaide, S.A.
- Construcciones Mariaezcurrena, S.L.
- Valeriano Urrutikoetxea, S.L.U.
- Altuna y Uria, S.A.

**SEGUNDO.**- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa Construcciones Moyua, S.L., el contrato de

etorbideko irisgarritasun hobetzeko

las obras contenidas en el Proyecto de

urbanizazio proiektuaren aldaketan jasotako obraren kontratua, hurrengo era honetan:

Modificación de urbanización para la mejora de accesibilidad de Nafarroa Etorbidea, en los siguientes términos:

\* Prezioa: 839.924,85 (BEZa ezik)

\* Precio:839.924,85 (Sin IVA)

\* Exekuzio epea: 6 hilabetekoa.

\* Plazo de ejecución: 6 meses

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikariak txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek laburbilduta:

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por el técnico municipal y que se resume de la siguiente manera:

PLEGUA	ESKANTZA EKONOMIKOA	OBRAREN ANALISIA ETA AFEKZIOAK				GUZTIRA
		ATAL NAGUSIAK	ATAL BALDINTZAGARRIAK	TRAFIKOA	AFEKZIOAK	
	65	7,5	7,5	12,5	12,5	105,00

LIZITATZALEA		ESKANTZA EKONOMIKOA	ATAL NAGUSIAK	ATAL BALDINTZAGARRIAK	TRAFIKOA	AFEKZIOAK	GUZTIRA
3	OTEGUI-GAZTAÑAGA	64,55	6,00	5,50	6,00	8,00	90,05
5	MOYUA	65,00	6,25	6,25	12,00	11,75	101,25
6	CAMPEZO	54,90	7,25	7,25	12,00	12,25	93,65

**HIRUGARRENA**- Aurzketu diren lizitatzale guztiei adjudikazio hau jakinaraztea

**TERCERO**.- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**LAUGARRENA**.-Kontratua formalizatzeko hamabos baliodun eguneko epea jartzea, lizitatzaleei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**CUARTO**.- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**BOSGARRENA**.- Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Adizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, adjudikatzenetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**QUINTO**.- Publicar la formalización del contrato en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de adjudicación.



**7.- 17-18-19/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **17/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.345,00 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.- 17/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **18/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **36.391,89 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.- 18/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **19/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **197.554,13 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.- 19/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**